



Ayuntamiento
de Vitoria-Gasteiz
Vitoria-Gasteizko
Udala

www.vitoria-gasteiz.org

GASTEIZKO UDALERRIAN KATU-KOLONIAK KUDEATZEKO PROGRAMA.

Osasun Publikoaren Zerbitzua
Kirolaren, Osasunaren eta Garapenerako Lankidetzaren Saila

2025. urtea

Kirolaren, Osasunaren
eta Garapenerako
Lankidetzaren Saila

Departamento de
Deporte, Salud y
Cooperación al
Desarrollo

Osasun Publikoaren Zerbitzua

Servicio de Salud Pública

San Bizente aldapa, z/g
Cuesta de San Vicente, s/n
01001 Gasteiz

Tel.: 945 16 12 05
Faxa: 945 16 19 76

saludpublica@vitoria-gasteiz.org
www.vitoria-gasteiz.org



Aurkibidea

1. Sarrera
2. Helburua
3. Jarduketa-eremua eta indarraldia
4. Lege-esparrua
5. Oinarrizko kontzeptuak: definizioak
6. Aurretiko analisisia
7. Katu-koloniak kudeatzeko erakundeekiko lankidetzak
8. Herritarren lankidetzak sustatzea katuek zaintzeko
9. Kontrol plana
 - 9.1. Mapaketa eta errolda.
 - 9.2. Katuek antzutzeko programa. HAMI
 - 9.3. Osasun-programa, identifikazioa eta markaketa.
 - 9.4. Antzutu ondorengo jarraipena eta kontrola.
 - 9.5. Koloniak zaintzea eta mantentzea.
 - 9.6. Ingurunearen gaineko neurriak.
 - 9.7. Animaliak adoptatzeko programa.
10. Jarduteko protokoloak.
11. Birkokapena
12. Prestakuntza
13. Hezkuntza eta kontzientziazio komunitarioa
14. Kontrola eta ebaluazioa
15. Katu komunitarioak aldi baterako kentzeko leku egokia, behar izanez gero.



1. Sarrera

Gure hirian, kaleko katu ugarirekin bizi gara. Katu horiek aske bizi ohi dira, baina ingurumenean integratuta daude, eta gizakiak ematen dienari esker elikatzen dira. Kale-katu batzuk elkarrekin bizi direnean nahikoa janari eskaintzen dien leku jakin batean, hiriko katu-koloniak sortzen dira. Kolonia batzuen gainpopulazio-egoerek eta/edo kolonia horien egoera desegokiek sufrimendua eragin diezaiekete katuei, eta osasungarritasunik eza eta herritarren bizikidetzako arazoak eta biodibertsitatea babesteko arazoak eragin ditzakete.

Indarrean dagoen Animalien Eskubideak eta Ongizatea Babesteko martxoaren 28ko 7/2023 Legeak egoera horri heltzen dio, eta VI. kapituluan (katu-koloniak) «Katu komunitario guztien populazioa kontrolatzeko arauak» ezartzen ditu, «katu populazioa pixkanaka murrizteko, lagun egiteko animalia gisa duten babesari eutsiz».

Helburu berarekin, Euskal Autonomia Erkidegoko etxeko animaliak babesteko ekainaren 30eko 9/2022 Legeak Euskal Autonomia Erkidegoko udalerrietako hiriko katu-kolonien erantzukizuna eta kudeaketa arautzen ditu.

2. Helburua

Proiektuaren helburu orokorra kalean bizi diren hiriko katuen populazioa kontrolatzeko estrategia eta antolaketa ezartzea da, animalia horien ezaugarriak eta izaera kontuan hartuta eta haien ongizatea eta babesa hobetzea helburu hartuta.

Gainera, katuen koloniek lotutako arazoak minimizatu nahi dira, haien bizi-kalitatea hobetzeko, basafaunaren gaineko inpaktua murrizteko, herritarren eta katu komunitarioen arteko bizikidetzaren sustatzeko eta osasun publikoaren gaineko arrisku potentziala saihesteko, animalien ongizateari eta kontrol etikoari eutsiz.

Gasteiz hiriko katu-koloniak kudeatzeko programak erantzunak eman nahi dizkie indarrean dagoen araudian, *Animalien Eskubideak eta Ongizatea Babesteko martxoaren 28ko 7/2023 Legean* eta *Etxeko Animaliak Babesteko ekainaren 30eko 9/2022 Legean* eta *Animalien Babesa eta Edukitza Arautzeko Udal Ordenantzan* ezarritako betebeharreri. Besteak beste, honako alderdi hauek jasotzen ditu: kontrol-plana HAMI metodoaren bidez, katuak mikrotxip bidez identifikatzeko protokoloak eta osasun-arreta, kexei erantzuteko protokoloak, taldekoiak diren animaliak adoptatzeko programak eta boluntarioen eta animaliak babesteko elkartearen arteko lankidetzaren sustatzea hitzarmen bidez.

3. Jarduketa-eremua eta indarraldia

Programa honen jarduera-eremua Gasteizko udalerrian dauden katu-koloniak dira; Gasteizko udalerriak, izan ere, 272 km² hartzen ditu, eta 64 biztanle-gune ditu, hiri handiaren nukleoaz gain.

Programak indarraldi mugagabea izango du, eta indarrean egongo da harik eta aldatzen edo berrikusten den arte, edo, hala badagokio, baliogabetzen edo ordeztzen den arte.



4. Lege-esparrua

- 7/85 Legea, apirilaren 2koa, Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituena.
- 2/2016 Legea, apirilaren 7koa, Euskadiko tokiko erakundeena.
- 39/2015 Legea, urriaren 1ekoa, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearena.
- 40/2015 Legea, urriaren 1ekoa, Sektore Publikoko Erregimen Juridikoari buruzkoa.
- 7/2023 Legea, martxoaren 28koa, Animalien Eskubideak eta Ongizatea Babestekoa.
- 9/2022 Legea, ekainaren 30ekoa, Etxeko Animaliak Babesteari buruzkoa.
- Animaliak Babesteko eta Modu Arduratsuan Edukitzeko Gasteizko Udalaren Ordenantza Arautzailea

5. Oinarrizko kontzeptuak: definizioak

Katu-kolonia: *Felis catus* espezieko katu talde bat, zeintzuk askatasun-egoeran edo erdiaskatasunean bizi baitira, eta zeintzuei gizakiek, katuen sozializazio-maila txikia edo hutsala dela-eta, ezin baitiete erraz heldu edo ezin baitituzte erraz elikatu, nahiz eta bizimodua gizakien inguruan egin, bizirik irautearren.

Katu komunitarioa: *Felis catus* espezieko banakoa, askatasunean bizi dena, baina lurralde bati lotua, eta gizakiek, katuaren sozializazio-maila txikia edo hutsa dela-eta, erraz heldu ezin diotena edo elikatu ezin dutena, nahiz eta bizimodua gizakien inguruan egin, bizirik irautearren.

Katu inguruan ibili zalea/alderraia: katu komunitariotzat hartzen ez den katua, zeina lagun egiteko animaliatzat edukitzen baita eta jabearen etxetik haren ikuskapenik gabe ateratzen baita. Etxe edo leku itxi batean konfinatuta ez dauden katuak dira, espazio edo bide publikoetan askatasunez ibitzen direnak. Animalia horiek badute legezko erantzule bat, eta haien ardura da katuak zaintzea eta katuek hirugarrenei eragiten dizkieten eragozpenen edo kalteen erantzukizuna.

Katu abandonatua: katu mota honek bazuen etxe bat eta legezko erantzule bat, zeinak kalean utzi baitzuen.

Katu galdua: katu mota honek, etxe bat eta legezko erantzule bat izanik, ihes egin zuen etxetik, edo galdu egin zen, edo ez du ezagutzen etxera itzultzeko bidea.

Animalia galdua: identifikatuta nahiz identifikatu gabe alderrai dabilen katua, helmugarik eta kontrolrik gabe, betiere haren titularrek edo arduradunek agintaritza eskudunari jakinarazi badiote galdu egin dela, gehienez ere galdu eta berrogeita zortzi orduko epean.

HAMI: Katu komunitarioak haientzat kaltegarriak ez diren bitartekoen bidez harrapatu, antzutu eta itzultzea barne hartzen duen kudeaketa-metodoa.



Katu-koloniaren zaintzailea: behar bezalako baimenarekin eta katu-koloniak kudeatzeko metodo baten bidez kolonia bateko katuak artatzen dituen pertsona, zeina ezin baita jo kolonia horretako katuen jabetzat edo erantzulezat.

Animaliak babesteko entitateak: irabazi-asmorik gabeko entitateak, jarduera hauetakoren batean jarduten direnak: animaliak zaintzea, erreskatatzea, errehabilitatzea, animaliak adoptatuko dituztenak bilatzea, katu-koloniak kudeatzea, katuak erantzukizunez edukitzearen inguruko kontzientziazioa eragitea, animalien defentsa juridikoa. Betiere, animaliak babesteko entitateen erregistroan inskribatuta egon behar dute, lege honetan xedatutakoaren arabera.

Birkokatzea: metodo honen bidez, martxoaren 28ko 7/2023 Legean jasotako salbuespenezko egoerak gertatzen direnean, katu-kolonia bat leku batetik kendu eta beste leku egokitu batera eramaten da, albitari profesional batek gainbegiratuta eta katuen ongizatea eta osasuna errespetatuta.

HAMI ekintza gogorrak : katu-kolonia batean esku hartzen aritu eta HAMI ekintzak kolonia horretako katu erroldatuen artean antzutu gabe geratzen direnen arteko % 50i baino gehiagori ezartzen zaizkionean ahalik eta denborarik laburrenean. Ekintza horiek ezarri beharko dira harik eta, gutxienez, kolonia osoko katu antzutuaren % 80raino iritsi arte.

Katu populazioaren kudeaketa sanitarioa: katu-populazioari buruzko erabaki sanitarioek populazio-ikuspegia hartu behar dute, banakako albitaritzaren aplikaziotik berezia.

Txartelik gabeko boluntarioa: elkarte parte-hartzaileraren batekin boluntariotza-akordio bat sinatu duen pertsona, baina oraindik prestakuntza-ikastaroa amaitu ez duena, eta, beraz, oraindik ez duena Gasteizko Udalak emandako txartela.

Txartela duen boluntarioa: parte hartzen duen elkarteren batekin boluntariotza-akordio bat sinatu eta prestakuntza-ikastaro ofizial bat egin duen pertsona; beraz, Gasteizko Udalak emandako txartel bat dauka, baimena ematen diona kontrolatutako kolonietako katuak elikatzeko.

Boluntario laguntzailea: katu-kolonia baten edo gehiagoren kudeaketan parte hartzen duen pertsona (elkarte parte-hartzaileraren batekin boluntariotza-akordio bat sinatu duena eta Gasteizko Udalak emandako txartela daukana edo ez), haien arduraduna izan gabe.

Katu-koloniaren arduraduna: kolonia baten kudeaketan pertsona askok parte hartzen badute, kolonia horretako arduradun nagusi bat izendatzen da. Pertsona hori proiektuaren batzorde kudeatzaileerako kontaktu nagusia izango da.

Elikatzailea: kaleko katu edo katu komunitarioei bide publikoan edo eremu pribatuetan janaria ematen dien pertsona, Udalaren baimenik gabe eta elkarte parte hartzaileekiko akordiorik gabe.

Koordinatzailea: boluntarioak koordinatzeaz eta/edo kudeatzeaz arduratzen den elkarte edo pertsona.



6. Aurretiko analisia

Lehentasunen estrategia bat ezarri ahal izateko, egoeraren diagnostiko bat egiten da, honako hauekin oinarrituta: koloniei eta haien geolokalizazioari buruz jasotako datuak, kolonietan antzutatutako eta antzutu gabeko banako-kopuruaren kalkulua, eta kudeatutako auzo-kexen kopurua. Jarduteko lehentasunak zehazterakoan kontuan hartu beharreko beste alderdi garrantzitsu bat da prest dauden boluntarioen kopurua.

Datuak lortzeko, ezinbestekoa da elikatzailen lankidetzak, haiek baitaukate informazio hori, baina animaliak zenbatesteko metodoak ere erabil daitezke.

Datu hauek hartu behar dira kontuan egoeraren diagnostikoa egiteko:

- Kolonien kopurua eta geolokalizazioa, kolonien azterketa espaziala egin ahal izateko.
- Katuen kopuru osoa (errola) eta antzutu gabeko animalien kopuru osoa, jarduketak aurrekontura egokitzeko.
- Kolonia bakoitzeko banakoen kopurua eta antzutatutako animalien kopurua zenbatestea, jarduteko lehentasunak ezartzeko "HAMI adierazlea" lortzeko modua izatearren.
- Lehentasuneko arloak identifikatzea, identifikatutako irizpide hauen arabera:
 - Ugaltze-tasa handia eta antzutu gabeko katuak dauzkaten koloniak.
 - Osasun-arazoak edo hilkortasun handia duten koloniak.
 - Eremita gatazkatsu edo arriskutsuetan dauden koloniak.
 - Egiturazko gabeziak dauzkaten koloniak.
 - HAMI programan berriki sartu diren koloniak.

7. Animalien babesaren arloko entitateekiko lankidetzak

Programa egikaritzeko, udal-langileez gain, bada gaur egun animaliak babesteko hainbat elkar-terren eta boluntarioen lankidetzak ere.

Gasteizko Udalak, 2016az geroztik, lankidetzak-hitzarmen bat sinatu izan du Grupo Alavés de Defensa y Estudio de la Naturaleza (GADEN) elkartearekin, katu-koloniak kudeatzeko.

Grupo Alavés de Defensa y Estudio de la Naturaleza (GADEN) elkarteak irabazi asmorik gabeko elkarte bat da, eta helburu nagusiak dira natura eta biodibertsitatea defendatzea eta aztertzea. Alegia, ingurumen-baliabideen babesa eta defentsa ezarri, sustatu eta eguneratzea, animalien eskubideen defentsa barne, eremu horietan jarduten duten pertsona eta erakunde publiko zein pribatuekiko lankidetzak sustatuz eta, bereziki, lurraldea zaintzeko tresnen eta ingurumen-boluntariorikaren bitartez.

GADENek, gainera, animaliak babesteko beste sei elkar-terren laguntza du (GACA, APASOS, Esperanza Felina, Betilagun, La Gatacueva eta Mis gatipelusos). Parte hartzaile guztiek harreman estua dute elkarren artean, eta bilerak egiten dituzte aldi berean.



Elkarteen arteko lankidetzaproiektu horretan, animaliak babesteko bi boluntario-sare sortu dira, Gasteizko udalerriko hiriko katu-koloniak kudeatzeko. Sareetako bat Esperanza Felina elkartearekin sortu da, eta bestea GADEN elkartearekin. Gaur egun, 82 parte-hartzaile dauzkate.

Sare horien oinarria lehendik kaleko katuak elikatzeaz arduratzen ari ziren pertsonak dira, zeintzuei laguntzeko interesa agertu duten beste batzuk gehitu baitzaizkie.

Boluntario-sare horiekin, programa honetan zehazten diren kolonien mantentze-lanak egiten dira, hala nola ur- eta elikagai-horniduraren zaintza, hareatzak garbitzea eta ingurumen-neurriekin lotutako jarduerak.

Elikatzaileek udal-txartela izan behar dute, izenduna eta espazio publikoetan katuak elikatzeko baimena ematen duena. Udal-txartel hori lortzeko, baldintza hauek bete behar dira:

- Boluntario-akordio bat sinatzea pertsona horien eta erakunde laguntzaileen edo hitzartuen artean, boluntarioaren betebeharrak eta eskubideak jasotzen dituena.
- Prestakuntza-ikastaroak egitea.

8. Herritarren lankidetzaz sustatzea katuak zaintzeko

Gasteizko Udalak "Esneko katakumeei laguntzeko" programa jarri du abian. Udaberri amaieratik urrira bitarteko denboraldian aktibatzen da, noiz ere kaleko katu-umealdi gehienak modu naturalean gertatzen baitira.

Esneko katakumeei arreta emateko sortu da programa; izan ere, hainbat arrazoi direla medio, ametatik bereizten dituzte eta Gasteizko Udaleko Animaliak Babesteko Zentroari entregatzen.

Programa honen helburua da herritarren parte-hartzea sustatzea katakumeen zaintzan, batez ere kaleko katuen zaintzan, gutxienez bi hilabetera arte garatzen laguntzeko.

Honetan datza: katakume horiek zenbait astetan etxe partikularretan hartzea, janaria eta zainketak emanez eta, gainera, haien sozializazioa eraginez, etorkizunean adoptatzeko prestatzeko.

9. Kontrol plana

9.1. Mapaketa eta errolda

Mapaketaren helburua da udalerrian dauden koloniak eta katuak identifikatzea, erregistratzearen eta katuen errolda egitearren.

Horretarako, boluntarioen eta animaliak babesteko entitateen lankidetzaz baliatzen da, haiek ematen eta eguneratzen baitituzte datuak.



Datuak erregistratzeko, "GatsAAP" tresna informatiko bat erabiltzen da, non koloniak ID zenbaki batekin erregistratuta geratzen diren.

Kolonia bakoitzaren erregistroak honako datu hauek jasotzen ditu, gutxienez: koloniaren IDa edo kodea, koloniaren izena, koloniaren kokapenaren helbidea, mapa batean UTM koordinatuak adieraztea, koloniaren ardura duen elikatzailaren datuak, animalia helduen eta katakumeen kopurua, antzututako animalien kopurua, mikrotxip bidezko identifikazio-datuak eta osasun-fitxa klinikoa.

Kolonia bakoitzaren kokapena Osasun Publikoko Zerbitzuko teknikariek adostu behar da, eta saihestu egin behar da eremu kaltebera edo kritikoetan kokatzea (ikastetxeetatik, ospitaleetatik, elikagaien eraldaketa- eta banaketa-eremuetatik hurbil dauden eremuak, osasun-zentroak edo beste kokaleku bateraezin batzuk, dela animalien ongizateagatik, osasun publikoagatik edo biodibertsitatea kontserbatzeko arrisku larriagatik, herritarren segurtasunagatik edo auzo-oposizio nabarmena duten lekuak izateagatik, edota ibilgailuen trafiko handiko eremuetatik hurbil daudenak eta beste).

Koloniak elikatzen dituzten pertsonak animalia kopurua eta banako berriak zaindu, elikatu eta kontrolatzen dituzte.

Elikatze-puntua kolonien erreferentzia da, aukera hauek ematen dizkigulako:

- Katua bere lurraldearekin erlazionatzea eta lotzea, eta kokapen geografiko jakin bati eustea.
- Kolonia lekualdatzeko oinarritzko tresna gisa.
- Harrapatze-puntu gisa.
- Koloniako banakoak zaintzeko eta banako berriak atzemateko gunea.

9.2. Katuak antzutzeko programa. HAMI.

Populazioa kontrolatzeko, HAMI metodoa aplikatzen da: harrapatzea, antzutzea eta jatorrizko koloniarantz itzultzea.

Kolonietan antzutzea eta identifikazioa egiteko, lehenetsuen plangintza estrategikoari jarraitzen zaio, eta kontuan hartzen dira antzutu gabe erregistratutako katuen kopurua eta kolonia bakoitzaren ezaugarri espezifikoak, betiere kolonia elikatzen duen pertsona bat badu.

Harrapatzeko, elikadura-puntu bat ezartzen da, janaria emateko ordutegi erregular batekin, ordu jakin batean agertzen diren katuak ohitzeko eta, horrela, harrapatu ahal izateko, ondoren albai-taritzia-klinikara eraman ahal izateko. Programatutako harrapatzearen aurreko egunean hobe da koloniarantz jaten ez ematea, harrapatzea erraztearren.

Atzeko ateak dituzten kutxa-tranpak erabiltzen dira. Animaliak harrapatu eta klinikara eraman behar direnerako jarraibideak ezartzen dira, haien estresa murriztearren eta haien ongizate-baldintzak babestearren.

Badira kalean katuak harrapatzen espezializatutako boluntarioak.



Antzutzea, obario histerektomia eta orkidektomia albaitaritza-kliniketan egiten dira. Kirurgia egin aurretik, animalia osasun-egoera aztertzen da. Behin oneratu eta albaitariaren behaketa-aldia igaro ondoren, haien koloniara itzultzen dira.

HAMI inprimakia betetzea (datu-bilketa, katu antzutuaren erregistroa): ID/identifikazio-zenbakia, izena, sexua, gutxi gorabeherako adina, arraza, ezaugarriak, ile-kolorea, mikrotxipa, zein koloniatakoa den, argazkia, parasitoak kentzea, antzutzea, kirurgiak eta tratamendu osagarriak
Koloniara itzultzea: Katu osasuntsuak baino ez dira itzuliko koloniara, eta, betiere, albaitariaren behaketa-aldiaren ondoren. Harrapatuak izan ziren leku/kolonia berean askatuko dira. Garraiatzean, animaliak behar bezala babestuta egongo dira.

Maneiatzeko jarraibideak:

- HAMI (harrapatzea, garraiatzea, egonaldiak eta itzultzea) prozesuan zehar, animaliak dauden kaiolak eta garraiatze-kutxak estalita egon beharko dira, katuak beren kordean direno.
- Prozesu guztietan, jarduketa-denborak ahalik eta laburrenak izan beharko dira, edo animalia bakoitzaren inguruabarren arabera (izaera, osasun-egoera, etab.).
- Estres baxuko maneiua HAMIaren fase guztietan txertatu beharko da: mugimendu leunak egitea, animaliak beharrezkoak ez diren estresen eraginpean ez jartzea, hala nola zaratak, beste animalia batzuen presentzia eta abar.
- Esne-kumeak dituzten emeak harrapatzea saihestuko da, baldin eta ezin bada bermatu kumeak aldi berean kenduko zaizkiola.
- Kaiolak eta animaliekin kontaktuan egoteko edozein tresna edo material erabili ondoren, higienizatu egin beharko dira, eta, bereziki, beste kolonia batean erabili behar badira.

9.3. Osasun-programa, identifikazioa eta markaketa.

Harrapatutako katuak albaitaritza-klinikara eramaten dira, eta han antzutu, barneko eta kanpoko parasitoak kendu eta mikrotxiparekin identifikatzen dira —Gasteizko Udalaren izena darama mikrotxipak—, eta AIEO (Euskadiko Lagun Egiteko Animalien Identifikazio Erregistroa) erregistratzen dira:

- 2025eko urtarriletik aurrera, antzutzeko harrapatzen diren katuak mikrotxip bidez identifikatzen dira, zeina lepoaren alboan ezartzen baitaie, eta AIEOn erregistratzen dira.
- Miaketa. Anestesiatu aurretik, katuaren osasun-egoerari buruzko miaketa orokorra egiten da, antzutzeko kirurgiarik egin ezin bazaio ere edo osasun-tratamenduren bat behar badu ere.
- Antzutze kirurgikoa: emeei obariohisterektomia egiten zaie, eta arrei orkiektomia.
- Belarria markatzea: ebaki txiki bat egiten da arren belarri ernean, eta emeen eskuineko belarrian, antzututa dauden animalien ikusizko identifikazioa errazteko.
- Parasitoak kentzea. Barne- eta kanpo-desparatizazioko tratamendua aplikatzea.
- Animalia zaurituak eta gaixoak artatzea: animalia gaixoak hautemanen gero, GADENgo koordinatzaileari jakinaraziko zaio, eta, egoeraren arabera, Osasun Publikoko Zerbitzua-ren baimena izan beharko du animalia gaixoa albaitaritza-klinika batera eramateko.



- Beste jarduketa batzuk: arestian aipatutakoez bestelako tratamenduak aplikatu behar direnean, Osasun Publikoko Zerbitzuaren baimena beharko da, eta zerbitzu horrek kasu bakoitza baloratuko du.

9.4. Antzutu ondorengo jarraipena eta kontrola.

Koloniaren jarraipena elikatzailleek egiten dute, eta honako hauetaz arduratzen dira:

- Kolonia aldian-aldian ikuskatzea.
- Zaintzea ea badagoen katu berririk, abandonaturik, inguruan ibili zalerik, katakumerik, gaixorik edo galdurik. Immigrazioak kontrolatzea: Koloniarra gehitzen diren katu berriak identifikatu, harrapatu eta antzutea. Koloniaren datu-basea eguneratzea eta katu berriak erregistratzea.
- Katakumeak eta katu sozialak adopzioan jartzea.
- Katuei albaitaritza-arreta ematea

9.5. Koloniak zaintzea eta mantentzea.

Katuak elikatzeko eta koloniak higie- eta osasun-baldintza egokietan mantentzeko, ahal den guztietan, bi boluntario izendatuko dira.

Jarraibide hauei jarraitu behar zaie:

- Katuak egunero elikatuko dira pentsu lehorrarekin eta, salbuespen gisa, elikagai hezearekin (latak).
- Ur garbia eta freskoa izango dute beti.
- Katuak leku berean eta ordu berean elikatzera ohituko dira, koloniaren behaketa errazteko.
- Janari-ontziek estetikoki diseinu egokia izango dute, eta landaredi-eremuetan ezkutatuta jarriko dira, ez oso agerian, inguruan bizi direnek proiektua ondo onar dezaten. Aldian-aldian garbitu eta higienizatuko dira.
- Ez da inoiz jatekorik lurtean utziko. Janari-hondarrak egunero jasoko dira, osasun-arriskuak saihesteko.

Lehentasunezkotzat jotzen da:

- Egunero jasotzea janari-hondarrak.
- Katuek sabela husteko erabilitako eremuak garbitzea, hondarreztagailuak jarri diren kolonietan.
- Ahal den neurrian, kolonien kokapenean berri ez zabaltzea, ez daitezen katuak abandonatu kolonietan; izan ere, kolonia erakargarri bihurtu daiteke etxeko katuak uzteko, jabearen kontzientziaren lasaigarri.
- Kolonietan ezinbesteko baldintza bada katuentzako altzari deigarri batzuk jartzea, baloratu behar da ea beharrezkoa den kolonia informazio-kartelen bidez seinaleztatzea.



9.6. Inguruneari buruzko neurriak

Inguruneari buruzko neurrien helburua da bertan bizi diren kolonien eta katuen osasungarritasun- eta ongizate-baldintzak ziurtatzea.

- Alde batetik, kolonien ingurunea egokitzeko eta saneatzeko ekintza batzuk jarri behar dira abian, katuen gutxieneko bizigarritasun- eta osasungarritasun-mailak lortzeko hasierako jarduketa batzuekin.
- Bestalde, beharrezkoa den lekuetan, animalien erosotasuna hobetzeko altzari espezifikoak instalatuko dira (etxolak, askak, janlekuak, hareatzak eta arraspak), baita koloniarren mantentze-lan sanitario egokia errazteko ere.
- Hala behar dela irizten zaien kolonietan kartel seinaleztatzaile bat jartzea, informazio honekin:
 - Gasteizko Udalak baimendutako kolonia bat da.
 - Katu-koloniak kudeatzeko programa baten parte da, eta HAMi metodoa aplikatzen du. Debehatuta dago animaliei jaten ematea, zaborra botatzea edo uztea, eta, era berean, debehatuta dago animaliei kalte egitea.
 - Udalaren logotipoa.

9.7. Animaliak adoptatzeko programa

Saiatu behar da taldekoia izan daitekeen ezein katu ez dadin itzuli kalera, eta, horretarako, adopzio-programa funtsezkoa da.

Proiektuan parte hartzen duten elkarteak adopzio-programaz eta harrera-etxeen sare bat sortzeaz arduratuko dira. Elkarte bakoitzak bere irizpideen eta baliabideen arabera jardungo du, baina guztien arteko koordinazioa izango da, kudeaketa-batzordearen bitartez, taldekoia izan daitekeen katu bat agertzen denean erantzun azkarra emateko.

Katu horiek harrera-etxeetara eramán ahal izango dira, lekurik badute, adopzioa kudeatzen den bitartean. Animalia horiek hartzen edo adoptatzen dituzten pertsonak beren gain hartuko dute animalia horiek zaintzeko erantzukizuna, Udalak ezartzen dituen baldintzen arabera. Nolanahi ere, harrerán dagoen bitartean txipak Udalaren izena izango du, eta, adopzioaren kasuan, adoptatzailearen izena izatera igaroko da. Dena delakoagatik animalia egokitzen ez bada eta itzuli behar bada, txipak Udalaren izena izango du osterá ere, salbu eta elkarte batek haren titulartasuna eskatzen badu.

Kolonian katakumeak, katu taldekoiak edo katu berri bat agertuz gero, eta haren portaera argi eta garbi katu sozializatu batena edo sozializatzeko aukera duen batena bada, adopzio-protokoloa aktibatuko da.

Adopzioa albatari kolegiatu baten bidez kudeatuko da, eta albatari horrek animalia entregatuko du, barruan eta kanpoan parasitoak kenduta, baldin identifikatu gabe abandonatutako animalia bada edo umealdi batetik badator. Mikrotxipa duen kolonia batetik datorren animalia bada, Gasteizko Udaleko Animaliak Babesteko Zentroan egingo da jabe-aldaketa.



Adoptatutako animalien erregistro bat izango da, zeina Osasun Publikoko Zerbitzura bidaliko baita; erregistro horretan jasoko dira hartu beharreko animalia-erregistroaren datuak, kolonien datuak eta adoptatzailearen datuak.

Adoptagarriak izango dira:

- Abandonatutako edo galdutako katuak. Kasu horretan, bitarteko guztiak erabili behar dira jabea aurkitzeko, mikrotxipa irakurtzeko (halakorik badago), etab. Jabea aurkitzen ez bada, erantzukizunezko adopziora igaroko da animalia.
- Kolonian jaiotako katakumeak, betiere 8-9 aste gainditzen ez badituzte. Ezin dira amarengandik banandu titia kendu arte.
- Kolonian jaiotako katu gazte eta heldu taldekoiak, zaintzaileekiko esposizio eta kontaktuen ondorioz izaera taldekoa dutenak, adina edozein dela ere. Adopzio-prozesu batera igarotzeko kolonietatik ateratako katu taldekoi horiek ez dute koloniara itzuli behar, kalteberatasun-egoeran jarriko bailirateke, haien bizitza arriskuan jarri.
- Osasun-arrazoiengatik kalteberak diren eta eutanasiarik behar ez duten katuei harrera egiteko aukerak ere bilatuko dira:
 - Ezinduta dauden animaliak edo zaharrak, beren osasun-egoeratik kalean bizi ezin direnak.
 - Koloniarako arriskutsuak diren animalia gaixoak.
 - Larri zauritutako animaliak, albertariaren arreta behar dutenak.

10. Protokoloak.

10.1. Kudeaketa eta auzo-gatazkak

Katuak egoteagatik bizilagunen kexak edo gatazkak sortzen direnean, gure jarduera-protokoloa honako hau da:

- • Herritarrak hiriko herritarrentzako arreta-sistemaren edo osasun publikoko posta elektronikoaren bidez jar dezake kexa (saludpublica@vitoria-gasteiz.org).
- • Gatazka gertatu den lekura bisita eta ikuskapena egiten da, kexa edo gatazka eragin duten gertakariak egiaztatzeko. Ikuskapen-bisita horretan, zerikusia izan duten alderdiekin harremanetan jarriko gara, gertakariak ezagutzeko eta, hala badagokio, bitartekotza egiteko.
- • Ondoren, egoeren arabera, hartu beharreko neurriak baloratuko dira eta zerikusia duten pertsonen jakinaraziko zaie.

Hartu beharreko neurri zuzentzaileak kasu bakoitzaren arabera izango dira. Hauek dira ohikoak:

- Informazioa ematea katu-koloniak kudeatzeko programari, animalien eskubideei, babesari eta indarrean dagoen araudiari buruz.
- Elikatze-puntuak ezkutatzea.



- Elikadura-puntua lekuz aldatzea kolonia birkokatu gabe.
- Baimenik ez duten elikatzaileak identifikatzea, katu-koloniak kudeatzeko programan sartzeko edo jarduerak zehatzeko.
- Udaltzaingoaren esku-hartzea eskatzea.

10.2 Eremu pribatuetan jarduteko protokoloa

Udalak uste badu kokapen pribatu batean katu komunitarioen kolonia bat egon daitekeela, jabeei jakinaraziko die, egoeraren berri emateko eta balorazioa egiteko baimena eskatzeko.

Udalak determinatzen badu katu-kolonia bat dela, jabeei jakinarazi beharko die, animalien egoeraren berri emateko, azalduz zer jarduketa egin behar diren, eta baimena eskatuz jardun ahal izateko eta esparru pribatuan sartzeko eta kolonia programan sartzeko.

Jabetzaren titularrek baimenik ematen ez badute, jakinaraziko zaie katuak beren erantzukizunpean geratzen direla, eta katuak jabe partikularra duten katutzat joko direla.

10.3. Katu komunitarioak obretan

Kasu batzuetan, kolonia bat kokatuta dagoen lekua hirigintza-birmoldaketa bat egiten ari den lekua izan daiteke, eraikin bat eraiki, eraitsi, birgaitu eta abar egin behar izan delako. Kasu horietan, kontuan hartu behar da obrek katu-koloniari eragiten diotela.

Horretarako, Osasun Publikoko Zerbitzua dagokion udal-sailarekin harremanetan jarriko da, eta katu-koloniak kudeatzeko programaren berri emango dio, egiazta dezan ea bide publikoan egiten dituen jarduketetan baden katurik, eta, hala badagokio, Osasun Publikoko Zerbitzuari behar besteko aurrerapenaz abisatu diezaion, kaltetutako animaliak kudeatu eta birkokatu ahal izateko.

Egoera horretan dauden katu-koloniak kudeatzeko, honako hauek hartuko dira kontuan:

- Katu taldekoiei (katakumeak, katu otzanei, etab.) adopzio arduratsua bilatuko zaie.
- Taldekoiak ez diren katuen kasuan, pixkanaka hurbileko eremu seguru batera lekualdatzea proposa daiteke.
- Katu-kolonia berriak sortu ahal izango dira. Bizilagunen, elkarte koordinatzaile nagusien eta Udalaren oniritzia beharko dute, haien bideragarritasuna egiaztatzeko.

10.4. Eremu kaltebera eta/edo kritikoen protokoloa.

Katuen segurtasun eta babesagatik, osasun publikoagatik, biodibertsitatea babestu eta iraunarazteagatik eta bizilagunei eragindako eragozpenak saihestegatik, honako eremu hauek ezarzen dira katu-koloniak finka ezin daitezkeen eremutzat:

- Haurtzaindegien, ikastetxeen, institutuen eta ikastetxeen instalazioetatik hurbil dauden eremuak.
- Osasun-zentroetatik (osasun-zentroak, ospitaleak, klinikak) eta adinekoen zentroetatik hurbil dauden eremuak.



- Elikagaiak manipulatzeko, eraldatzeko, biltegiatzeko eta banatzeko diren hurbileko eremuak (handizkako merkatuak, ostalaritza-establezimenduak, elikagai-industriak eta -biltegiak, etab.).
- Kirol-zentroen instalazioetatik hurbil dauden eremuak.
- Ibilgailuen zirkulaziorako bide lasterretatik edo ibilgailuen zirkulaziorako bide oso handietatik hurbil.
- Faunan edo ingurumenean inpaktu negatiboa izateko arriskua duten espazioak

11. Koloniak birkokatzea

Kolonia osoak desagerrarazteko edo birkokatze saiakerak huts egin ohi dute; izan ere, hala sortzen den hutsune ekologikoa berehala kolonizatzen baitute ondoko kolonietako beste katu batzuek edo abandonatutako katuek. Eremu irekiek elikadura-baliabideak eta gutxiegi erabiltzeko babeslekuak baitituzte, hango eta hemengo katu berriak erakartzen dituztenak. Eremu bat kolonizatzen duten katu iritsi berriek ugaltze-ziklo berri bat has dezakete hasierako kolonia desagerrarazi ondoren hutsik geratu den nitxo ekologikoan.

Katurik gabeko eremu bat mantentzeko modu bakarra elikadura-iturri guztiak (janari-hondarrak, balizko harrapakinak eta jendeak eskaintzen dizkieten elikagaiak) desagerraraztea da; oro har, hori ezinezkoa izaten da edo ez da izaten oso praktikoa, eta, beraz, behar diren egoeretan soilik aplikatzen da birkokatzea:

- Bateriaezina bada osotasuna eta bizi-kalitatea zaintzearekin.
- Natura-gune babestuetako eta Natura 2000 Sareko guneetako biodibertsitate-baldintzetan eragin negatiboa badu.
- Babestutako faunari kalte egiten badio.
- Pertsonen osasunaren eta segurtasunaren aurkako arriskua badakar.

Kasu horietan, adopzioan eman ezin diren katuak beste kolonia batzuetan birkokatze modurik onena aztertuko da.

12. Prestakuntza

Katu-koloniak eta haiek osatzen dituzten animaliak behar bezala zaintzeko eta artatzeko, ezinbestekoa da boluntarioek gutxieneko ezagutza batzuk izatea. Horretarako, aldizka boluntarioei zuzendutako tailer-ikastaroak ematen dira.

Tailerrak udal-albaitariak eta/edo elkarte laguntzaileetako beste pertsona batzuek ematen dituzte.

Tailer-ikastaroen edukiak ezagutza orokorrak dira:

- HAMI sistema, haren faseak eta helburuak.



- Koloniaren kudeaketa egokia eta zehatza lortzera bideratutako konpromiso batzuk hartzea.
- Katuen gaixotasunak antzematea.
- Koloniaren higiena eta garbiketa mantentzeko jarraibideak.
- Katuen elikadura egokia.
- Koloniaren inpaktu ikusizkoa; altzari egokiak.
- Katu bakoitzaren errolda egiteko eta katu berrien etorrera kontrolatzeko jarraibideak.
- Katu sozializatuak adoptatzeko sarea.
- Gatazkak kudeatzea koloniaren inguruko auzokideekin.

13. Hezkuntza eta kontzientziazio komunitarioa.

Azken urteotan, Gasteizko Udalean jarduketa-ildo bat landu da, herritarrak kontzientziazearren gure animaliak errespetatzearren eta babestearen garrantziaz. Linea horri eutsi nahi zaio, katu komunitarioen gaineko jardunak txertatuz.

Egin diren jarduerak:

- Maskotaren eguna ospatzea, konpainiako animaliaen munduarekin lotutako jarduera eta stand ugariarekin.
- Animaliak abandonatzearen aurka borrokatzeko kanpaina. Lelo hau egin zen: "Ez nazazu abandonatu. Berak beti aukeratuko zintuzke" eta hedapen handia egin zen udal-plataformen bidez.
- Ate irekiekiko jardunaldia Animaliak Babesteko Zentroan, abandonatzen diren animaliak non bizi diren ikusarazteko. Txakurrak eta katuak zaintzeari eta maneiatzeari buruzko jarduera eta hitzaldi ugari egin dira.

14. Kontrola eta ebaluazioa

Programaren eraginkortasuna kontrolatzeko eta ebaluatzeko, jarduera hauek egiten dira:

14.1 Boluntarioen, kolonien eta animalien datuak biltzea.

Koloniez arduratzen diren boluntarioek biltzen dituzte datuak, eta, horretarako, bi inprimaki diseinatu dira:

- Inprimakietako bat boluntario guztiek bete behar dute. Inprimaki horretan, boluntarioek beren datuak ematen dituzte, eta une horretan zein kolonia elikatzen ari diren zehazten dute. Aldian-aldian bete behar den inprimakia da, eta boluntarioen datuak eguneratzeko eta zein koloniaz arduratzen diren jakiteko balio du. Boluntario bat koloniaren ardura-duna bada, inprimakian adierazi behar du.
- Beste inprimakia kolonia bakoitzeko arduradunak bakarrik bete behar du. Inprimaki horretan arduradunaren datuak (izen-abizenak eta harremanetarako datuak) eta koloniaren datuak (koloniaren kodea, herria, eremua, espazioa, kokapena, geolokalizazioa, errolda, animalia kopurua eta ea antzutu dauden, kolonietako altzariak eta ekipamendua, beste datu batzuk...) agertu behar dira. Beraz, inprimaki bat izango dugu kolonia bakoitzeko.



14.2 Datuak erregistratzea:

Fitxetan jasotako datuak koordinatzaileari bidaltzen zaizkio, eta hark Osasun Publikoko Zerbitzura bidaltzen ditu datuak, koloniak kudeatzeko GatsAPP aplikazioan erregistratzeko. Osasun Publikoko Zerbitzuak "GatsAPP" tresna informatiko bat eskuratu du, datu hauek erregistratu eta kudeatzeko: koloniak, hura osatzen duten katuak, boluntarioen identifikazio-datuak, animalien fitxa klinikoak, kexak, eremu kalteberen eta/edo kritikoen kontrola. Osasun Publikoko Zerbitzuko langileek kontrolatutako kolonien eta katuen datu guztiak erregistratu dira, eta aplikazioaren bertsio berriak aukera emango die boluntarioei eta kolonien arduradunei katuen eta kolonien datuak zuzenean eguneratzeko. Horretarako, web-gune bat erabil daiteke telefono mugikorretik.

14.3 Kontrol-planaren ebaluazioa:

Proiektuaren helburu nagusia da katu komunitarioak udalerrian egonkortzen eta kontrolatzen direla bermatzea, eta, horretarako, antzutzea baliatzen da, kolonia bakoitzean gutxienez % 80ko antzutze-helburua ezarrita.

Eskuratu den aplikazioak, gainera, datu hauek lortzeko aukera ematen du:

- Kolonien jardute-erradioa (hedadura)
- Antzutzearen ehunekoa koloniako.
- Kolonien eta katuen bilakaera
- HAMIaren bilakaera
- Sakabanatze-indizea (HAMIa sakabanatua den edo kolonia jakinetan kontzentratzen ari den)
- Eraginkortasun-indizea: "HAMI indizea" erabiltzen da:
HAMI indizea formula honen arabera kalkulatu da koloniarako:
$$\text{HAMI} = \frac{\text{Antzututako katuen kopurua}}{\text{Erroldatutako katuen kopurua}}$$
gutira

Lortutako balioetatik abiatuta, bost kategoriatan sailkatzen dira koloniak, programaren betetze-mailaren arabera:

- 1.00: Erabat antzututako koloniak.
- 0,80 - 0,99: Antzutze-maila egokia duten koloniak.
- 0,50 - 0,79: Antzutze-maila eskaseko koloniak.
- 0,01 - 0,49: Oso antzutze-maila txikiko koloniak.
- 0.00: Esku hartzerik gabeko koloniak.

15. Katu komunitarioak aldi baterako kentzeko leku egokia, behar izanez gero.

Gasteizko Udalak animaliak babesteko zentro bat du, eta, han, katu komunitarioak artatzen dira, behar izanez gero.

Hala ere, bada eraberritze-proiektu bat, instalazioen edukiera katuen egungo eskarira egokitzeko. Proiektu horretan, aldi baterako erretiratzen diren katu komunitarioei arreta emateko eremu espezifiko bat egokitzea aurreikusten da.